

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ILEAREN FORMA-ALDAKETA ALDI BATERAKOAK ORRAZKERAK, AKABERAK ETA ORRAZKERA BILDUAK	Iraupena	90
		Berariazkoa	
Kodea	UF0532		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ileordeak, ile-eranskinak eta ile-luzapenak jartzea	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0349_2 ILEAREN FORMA ALDI BATERAKO ALDATZEA, ORRAZTEA ETA/EDO BILTZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, aldi baterako ile-aldaketak, orrazkerak eta orrazkera bilduak eta ile-akaberak egiteari dagokionez

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bezeroa eta profesionala babesteko, aldi baterako forma-aldaketak egiteko tekniketara egokitutako babes-neurriak hartzea.

EI1.1 Bezeroa posizio anatomiko egokian jartzea eta janzkera egokiarekin babestea.

EI1.2 Teknika gauzatzeko posizio anatomiko egokian jartzea.

EI1.3 Aldi baterako forma-aldaketetako teknikak aplikatzean gerta daitezkeen istripu-motarik ohikoena azaltzea, haiek eragiten dituzten kausekin eta hartu beharreko neurri prebentiboekin erlazionatuzko.

A2: Ilearen ezaugarriak eta bezeroaren morfologia aztertzea, forma-aldaketa eta posizioa —ilearen norabidea— finkatzeko, bezeroaren eskariak eta beharrak zein diren eta zer estilo lortu nahi den aintzat hartuta.

EI2.1 Buru-larruazala eta ilea aztertzean kontuan hartu beharreko parametroak adieraztea: mota, buru-larruazaleko eta ileko alterazioak, luzera, kolorea, forma.

EI2.2 Bezeroak zer eskaera dituen zeta zer estilo lortu nahi duen hautematen laguntzen duten galderak egitea, eta fitxa teknikoan erregistratzea.

EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan:

- Buru-larruazalaren eta ilearen ezaugarriak aztertzea, eta aldi baterako forma-aldaketetarako zenbait teknika erabiltzea eragozten duten anomaliak edo alterazioak detektatzea.
- Forma-aldaketa eta orrazkera erabakitzean eragina duten bezeroaren ezaugarri morfologikoak eta gorpuzkera fisikoari dagozkionak deskribatzea.
- Forma-aldaketa, orrazkera edo orrazkera bildua proposatzeko, bezeroaren eskaerak, estiloa eta beharrak zein diren ikertzen laguntzen duten galderak zerrendatzea.
- Forma-aldaketaren eta orrazkeraren proposamena bezeroari jakinaraztea eta harekin adostea.

A3: Forma-aldaketaren prozesua aztertzea, eta hura lortzeko behar diren aparatuekin, tresnekin eta kosmetikoekin lotzea.

EI3.1 Beroak, luzatzeak eta hezetasunak ile-keratinan zer eragin dituzten azaltzea.

EI3.2 Forma-aldaketa batean aire bidezko eta airerik gabeko bero-iturri gisa erabil daitezkeen aparatuek deskribatzea.

EI3.3 Orrazkera errazago egiteko eta hark gehiago irauteko erabil daitezkeen aktibo kosmetikoak zein diren eta jarduera-mekanismoa nolakoa den azaltzea.

EI3.4 Molde finkoak erabiliz forma-aldaketa bat egiteko kasu praktiko batean, hauek adieraztea:

- Molde-motak.
- Kosmetikoak.
- Buruaren marrazki eskematiko baten gainean, moldeen kokapena, eta haien norabidea eta noranzkoa finkatzean.

A4: Ile-forma aldi baterako aldatzeko teknikak trebetasunez aplikatzea, prozesuan baliabide eta produkturik egokienak erabiliz.

EI4.1 Aldi baterako forma-aldaketa bat egiteko erabiltzen diren kosmetikoak aplikatzeko modua eta haien dosimetria deskribatzea.

EI4.2 Aldi baterako forma-aldaketetarako aparatuek eta tresnak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko prozesua azaltzea.

EI4.3 Beroa erabiliz lehortzeko kasu praktiko batean, hauek adieraztea:

- Tenperaturaren egokitzapena.
- Lehorgailutik ilerako distantzia.
- Prestatze-denbora.

A5: Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuen protokoloa egokitzea, eta bezeroen ezaugarri morfologikoekin eta haien behar eta eskariekin erlazionatzea.

EI5.1 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuen faseak deskribatzea.

EI5.2 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuetako jarduera-protokoloak deskribatzea.

EI5.3 Orrazkeren, akaberen eta orrazkera bilduen estilo ezberdinek bezeroaren ezaugarri fisiko eta morfologikoetan eragiten dituzten efektuak azaltzea.

EI5.4 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuaren etapa bakoitzean egokienak diren kosmetikoak identifikatzea.

EI5.5 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuen protokoloak egokitzeko kasu praktikoetan:

- Bezeroaren ezaugarri morfologikoak identifikatzea eta eskematizatzea.
- Aldi baterako forma-aldaketa egiteko kosmetikorik egokiena identifikatzea.
- Desoreka estetikoko orekatzeko orrazkera-motarik edo orrazkera bildu motarik egokiena deskribatzea.

A6: Orrazkeren, akaberen eta orrazkera bilduen prozesuak trebetasunez egitea, emaitza ona lortzeko baliabiderik eta produkturik egokienak erabiliz.

EI6.1 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko teknikak bezeroaren eta profesionalaren segurtasun-neurriekin eta higiene-neurriekin erlazionatzea.

EI6.2 Ilearn orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko kasu praktikoetan:

- Bezeroa prestatzea eta babestea.
- Proposatutako aldaketen berri bezeroari ematea, eta bezeroarekin adostea.
- Egin behar den prozesurako egokienak diren tresnak, osagarriak eta kosmetikoak hautatzea eta prestatzea.
- Kosmetikoak ile-motaren, teknikaren eta lortu nahi den emaitzaren arabera hautatzea eta erabiltzea.
- Zatiketak egin behar den prozesuaren arabera egitea.
- Lortu nahi den iraupena, efektua eta bolumena aintzat hartuta kardatzea.
- Lortu nahi den efektuaren arabera antolatzea ilea eta aplikatzea leuntze-teknikak.
- Orrazkera bildua lotura-puntuetan finkatzea, lotzeko erabilitako osagarriak ezkutatzuz.
- Apaingarriak egokitzea eta finkatzea.

A7: Orrazkeren, akaberen eta orrazkera bilduen prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzea, eta emaitzak aurreikuspenetara egokitzeko egin beharreko aldaketak proposatzea.

EI7.1 Ilearn aldi baterako forma-aldaketaren, orrazkeraren, akaberaren eta orrazkera bilduaren emaitza aztertzea, eta zerbitzuaren kalitatea zehazteko prozesuko zer alderdi ebaluatu behar diren identifikatzea.

EI7.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —lortutako azken emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari eta profesionalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoekin galdetegiak egitea.

EI7.3 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak identifikatzea.

EI7.4 Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko zerbitzua ebaluatzeko kasu praktikoetan:

- Prozesuko kalitate-adierazleak identifikatzea.
- Aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak identifikatzea, eta desbideratzeen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak arazoitzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI7.5 Prozesuko gorabeherak bezeroaren fitxan jasotzea, hurrengo zerbitzuan kontuan izateko.

Edukiak

1. Bezeroaren itxura eta haren ilearen egoera eta ezaugarriak aztertzea.

- Giza fisionomia eta hark orrazkera, akabera eta orrazkera bildu desberdinekin duen erlazioa:
 - Aurpegiaren morfologia eta aurpegierak.
 - Giza gorputzaren proportzioak: garaiera, pisua eta gorpuzkera.
- Ilearn ezaugarriak eta egoera, eta hark orrazkera, akabera eta orrazkera bildu desberdinen prozesuekin duen erlazioa:
 - Ile-motak.
 - Ile-keratina: aldi baterako forma-aldaketak egiteko teknikekin aldatzen diren egiturak.
 - Aldi baterako forma-aldaketen oinarri zientifikoak.
 - Hauek finkatzeko eta baloratzeko jarraibideak: banaketa; kalitatea; luzera eta malgutasuna; forma-aldaketetan eragiten duten anomaliak eta alterazioak;
- ilean orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteari dagokionez gaur egungo modan dauden joerak.

2 Aldi baterako forma-aldaketetarako aparatuek eta kosmetikoak hautatzea eta aplikatzea.

- Aldi baterako forma-aldaketetarako kosmetika espezifikoa:
 - Jarduera-motak eta -mekanismoa. Produktu egokitzailak: bolumen-emaiak, aldi baterako kizkur-kentzailak, argizariak eta abar. Finkatzailak. Akabera-produktuak.
 - Konposizioa eta forma kosmetikoak. Hautatze-irizpideak eta jarraibideak.
 - Zuzen kontserbatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko jarraibideak.

- Ilearn forma aldatzeko aparatuak eta tresnak:
 - Aparatuak: eskuko ile-lehorgailua eta kasko-itxurakoa, lisaburdinak, ile-kizkurgailuak eta abar.
 - Tresnak: eskuilak, orraziak, pintzak, moldeak, osagarriak eta abar.
 - Ilearn forma aldatzeko aparatuak eta tresnak maneiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanak.
- Segurtasuna eta higiena orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko aparatu elektrikoak erabiltzean.
 - Aparatuak berrikustea: entxufeak, kableak, konexioak.
 - Aparatuen, osagarrien eta beste osagai batzuen garbiketa eta mantentze-lanak. Behar bezala funtzionatzeko arauak.
 - Aldi baterako forma-aldaketetan maizen gertatzen diren lesioak eta istripuak.

3 Aldi baterako forma-aldaketetarako teknikak.

- Ilearn forma-aldaketak eta aldaketen gauzatze teknikoak.
 - Eskuko ile-lehorgailuarekin markatzeko eta orrazteko teknikak. Molde-motak: erabilera eta efektuak.
 - Erruloekin markatzeko teknikak. Molde-motak: erabilera, biltzea eta efektuak. Muntaketa-motak: efektuak.
 - Eraztunekin markatzeko teknikak. Muntaketa-motak: efektuak.
 - Ur-uhinekin markatzeko teknikak: norabideak eta efektuak.
 - Uhinak ile-kizkurgailuekin markatzeko teknikak: norabideak eta efektuak.
 - Orrazkeren, akaberen eta orrazkera bilduen oinarritzko estiloak. Ile-motaren arabera: motza, erdi luzea, lisoa, uhindua, kizkurra. Okasioaren arabera: festak, ezkontzak eta abar.
 - Apaingarriak eta osagarriak jartzea.
 - Ilearn forma-aldaketen estiloak eta teknikak. Gauzatze teknikoak.
- Aldi baterako forma-aldaketetarako protokoloak egokitzea.
- Aldi baterako forma-aldaketetan arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
 - Janzkera. Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
 - Lehen laguntza aldi baterako forma-aldaketak egiteko prozesuetan.
- Aldi baterako forma-aldaketetako prozesuetako bezeroa babesteko neurriak: Janzkera. Aldi baterako forma-aldaketetako prozesuetarako gomendatutako jarrera-higienea,

4. Orrazkerak, akaberak eta orrazkera bilduak egiteko prozesuen kalitate-kontrola.

- Orrazkerak, akaberak, orrazkera bilduak egiteko prozesuen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Forma aldi baterako aldatzeko prozesuak ebaluatzeko eta haien kalitatea kontrolatzeko metodoak.
- Zerbitzu horien neurri zuzentzaileak diseinatuzko jarraibideak.
- Kexak ebazteko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketa.